

2021eko MARTXOAREN 30eko OHIKO OSOKO BILKURA **LEHEN DEIALDIA**

Artzibarko udaletxean, bi mila eta hogeitabateko martxoaren hogeita hamarreko hamabietan, Artzibarko Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko, legean agindu bezala, eta lehen deialdian.

MAHAIBURUA: Alkate-Udalburua CARLOS OROZ TORREA

BERTARATUAK: Zinegotzi hauek:

Maria Isabel Cañada Zorrilla
Juan Jose Echavarren Salvador
Garoa Gartziandia Agirrezabala
Francisco Javier Erro Remirez
Carlos Iriarte Iraceburu
Clara Ruiz de Gauna Borreguero

Idazkaria: Joana Estanga Urroz

Alkate udalburuak gai zerrenden gaiei ekin die. Hona hemen:

1.- Aurreko bilkuretako aktak irakurri eta onestea.

2021eko urtarrilaren 26an egindako osoko bilkura arruntaren akta ez da irakurri zinegotziek aldeztu aurretik haren fotokopia jaso dutelako, bilkura honetako deialdiarekin batera. Alkate udal buruak galdetu du zinegotziren batek aurreko bilkuren aktari oharpenik egin nahi dion. Inork ez du ezer esan eta bozketa egin ondoren akta aho batez onetsi da eta bertan izan ziren guztiek sinatu dute.

2.- Jakinarazpen ofizialak Osoko Bilkuraren ezagumendurako

Honako jakinarazpen ofizialen informazioa eman da, osoko bilkurak horien berri izan dezan:

- Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendari Nagusiaren martxoaren 17ko 53/2021Ebazpena. Haren bidez Artzibarko Udalari 11.679,17€ eman zaizkio eta 9.039,77€ jasotzea ukatu zaio libreki emandako ekarpenaren bitartez.

3.- Alkatearen ebazpenak Osoko Bilkuraren ezagumendurako

Alkateak honako ebazpenen inguruko informazioa eman du, osoko bilkurak jakin dezan:

- 2021eko otsailaren 9ko 1/2021 alkate ebazpena, Saraguetan, Done Joanes karrrikako 6. zenbakiko etxeko fatxadan baoa irekitzeko eta patioan zola jartzeko obra-lizentziaren aldeko txostena emanaz.

4.- Tokiko ehiza barrutiak eratzeko lurrak uztea:

A) Nagoreko Kontzejuko eskaera

Nagoreko Kontzejuaren idazkia ikusi da. Horren arabera, Kontzejuak 2021eko urtarrilaren 15ean hartutako erabakiaren bidez, toki-erakunde horren titulartasuneko NA 10068 ehiza-barrutia berriro eratzea erabaki zen, hamar urterako, Tokiko Ehiztari Elkarteari zuzenean esleitzeko asmoz.

Hartara, beharrezkoa dela Udalerri honetako Otsa eta Usotz dermioen lurrak ehiza barruti horretan sartzeari, azkeneko urteetan egin moduan.

Aho batez erabaki da:

LEHENIK: Nagoreko Kontzejuari baimena ematea Otsa eta Usotzko lurrak ehiza barruti horretan sartzeko, honako baldintzetan:

Lur horiek ehiza barrutia indarrean dagoen bitartean batuko dira.

Artzibarko Udalak 1.470,00 € jasoko ditu urtero, gehi BEZa eta k.p.i.

Artzibarko Udalak Otsa eta Usotzko usategi guztiak kudeatuko ditu.

BIGARREN: Nagoreko Kontzejuari erabaki honen berri ematea.

B) Saraguetako kontzejuko eskaera:

Saraguetako Kontzejuaren idazkia ikusi da. Horren arabera, Arrieta, Saragueta, Hiriberri-Artzibar eta Urizko kontzejuek 2021-03-25ean hartutako erabakiaren bidez, NA 10179 ehiza-barrutia berritzea erabaki zen. Orain arte, Arrietako Kontzejua izan da barruti horren titularra, eta Saraguetako Kontzejua izango da titular, hamar urterako. 2030/2031 ehiza-denboraldia amaitzean amaituko da, eta asmoa da zuzenean Larrogain Tokiko Ehiztari Elkarteari esleitzea. Hartara, beharrezkoa dela Udalerri honetako Gorraitz, Imizkotz, Urdirotz eta Espozeko dermioen lurrak ehiza barruti horretan sartzeari, azkeneko urteetan egin moduan.

Aho batez erabaki da:

LEHENIK: Saraguetako kontzejuari baimena ematea Gorraitz, Imizkotz, Urdirutz eta Espozeko herri lurak ehiza barruti horretan sartzeko, honako baldintzetan:

- a) Lur horiek 10 urterako batuko dira.
- b) Artzibarko Udalak 3.454,00 € jasoko ditu urtero, gehi BEZa eta k.p.i.
- c) Artzibarko Udalak Gorraizko usategi guztiak kudeatuko ditu. Horien adjudikazioa enkante publikoaren bidez egingen da.

BIGARREN: NA 10179 Ehiza Barrutiaren titularra, parte hartzen duten gainerako toki entitateen ordezkari gisa, Saraguetako kontzejua izendatzea, IFZ P3166100B, Done Joanes z/g, Saragueta (Artzibar) PK 31438.

HIRUGARREN: Saraguetako Kontzejuari erabaki honen berri ematea.

5.- Biztanle kopuruen zenbaki ofizialak onestea

Aho batez erabaki da 2021eko urtarrilaren 1eko biztanle kopuruak onartzea, hots, 297 biztanle, horietatik 159 gizonezko eta 138 emakumezko. Jarraian jakinarazi da 2020an 44 alta eta 21 baja izan direla udal erroldan.

Udalbatza jakitun dago.

6.- Alkatetzaren txostenak

Alkateak honako informazioa eman du:

-Otsailaren 17an, Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiarekin bildu ziren Nagoreko hondartzak erabiltzeko eta kudeatzeko planari buruz hitz egiteko: haien gobernantza, Nagoreko Kontzejua egiten ari den aparkaleku-ordenantzak, Foruzaingoarekin egindako hitzarmena, autokarabanen aparkalekuak arautzea, zaborrak, komunak, etab.

- Ondoren, bigarren bilera bat egin zen hondartzen kudeaketari buruz hitz egiten jarraitzeko: seinaleztapena, segurtasun- eta ebakuazio-plana, etab.

- Martxoaren 17an, bilera deia egin zitzaien Zangozaldeko alkateei Zangozan Maria Chivite lehendakariarekin biltzeko. Ekonomia eta Ogasuneko buru Elma Saiz Delgado eta Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako buru Jose Maria Aierdi Fernandez de Barrena ere bertaratu ziren. Honako hauek azaldu ziren: egungo langabezia-egoera, pandemiaren ondoriozko diru-bilketaren murrizketa, gobernuak ostalaritza-sektoreari emandako laguntzak, Pirinio

Aurreko Eskualdean egindako inbertsioak, Agoizko Hezkuntza Institutu berria, banda zabalean sartzeko aurreikuspena, pandemiaren ondorioak arintzeko jasoko diren Europako funtsak, etab.

7.- Kide anitzeko organoetako eta bestelako ordezkarien informazioa

Maria Isabel Cañada Zorrilla zinegotziak honako informazioa eman du:

- Despentsa ehuntzen: Daniel eta Nina Carasso Fundazioaren finantzaketarekin eta Entretantos Fundazioaren bitartez egiten ari den proiektua da. Helburua da inguruan dauden ekoizleak identifikatzea, banaketa, garraioa, salmenta eta abar, inguruko ekoizleak inguruko saltokiekin konektatzen saiatzeko eta, horrela, tokiko kontsumoa sustatzeko. Proposatu du Udalak bat egitea proiektuarekin.
- Pirinioko Mahaia Urraul Goitik Pirinio eskualdean sartzea eskatu du. Azken bileran mahai osoaren ikuspegi argiagoa izatea aipatu zen; izan ere, lan-batzorde bakoitza dagokion arloa dinamizatzen ari da bere kabuz, baina Pirinioetan jarraitu beharreko estrategiaren ikuspegi orokorra bilatzeko beharra ikusi da.
- Irati Hondakinen Mankomunitatea: Ingurumen-inpaktuaren azterketa bat idatzi da, Lakaben konpostaje-planta bat jartzeko jarduera-lizentzia lortzeko.

Clara Ruiz de Borreguero zinegotziak honako informazioa eman du:

- Pirimakume Elkarteak Piriniorako berdintasun agentea kontratatzeko aukera aztertzen ari da.
- Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea: Azkeneko Batzar Orokorrean gai hauetaz aritu ziren: 2020ko aurrekontu-hertsieraren emaitza, langilegoa, errenta bermatuaren eskaera handitzea, etab.
- Apirilaren 16an genero indarkeriaren gaineko protokoloaren aurkezpen ofiziala egingen da Agoitzen.

8.- Eskaerak eta galderak.

Ez dago

Gai-zerrendatik kanpo eta aho batez onetsitako urgentzia aitortu ondoren, honako gaiak sartu dira:

Aurrekontuaren aldaketak.

Jarraian honako aurrekontuko aldaketak proposatu dira:

1/2021 Txostena. Kreditu gehigarria:

		KREDITUA
4	Udal Batasunaren banaketa	2.000
FINANTZAZIO ITURRIA		
8	Diruzaintzaren soberakina G.O.	2.000

2/2021 Txostena. Kreditu berezia

KAPITULUA		KREDITUA
6	Herritarren partaidetza Plana	11.300
FINANTZAZIO ITURRIA		
7	Partaidetza planaren diru-laguntza	8.800
8	Diruzaintzako soberakina	2.500

Aho batez erabaki da:

LEHENIK: 2021eko Aurrekontu Orokor Bakarraren aldaketa txostenak hasiera batean onartzea. (1 eta 2/2020 Txostenak)

BIGARREN: Osoko Bilkurak hasiera batean onartu duen aurrekontuaren aldaketak Idazkaritzan jartzea jendaurrean hamabost egun balioduneko epean, aldez aurretik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Iragarki Oholean argitaratuz, bizilagunek eta interesdunek espedientea aztertu eta egokiak ikusten duten alegazioak egin ditzaten.

HIRUGARREN: Jendaurreko epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontuaren aldaketa behin betiko onetsizat emango da.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez alkateak bilkura bukatutzat eman zuen hamalauak eta berrogeita hamarrean, eta nik akta egin dut eta bertan zeudenek sinatu dute eta nik, idazkaria naizen aldetik, ziurtatu dut.